

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-MAIATZAREN 7A-428.ZENBAKIA

KARKARA



GAZTEAK

**ETORKIZUN LAUSOA
IZURRITE GARAIAN**

PUBLIZITATEA



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO
943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketarik

SERVICIO INTEGRAL DE LIMPEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
 636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jateetxea*

Abeslari kalea, 2
 ORIO
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitarztekoak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.

arkaitz taberna
 •••••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrenekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



fontana
iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28



azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37



KARKARA 428

2021-MAIATZAREN 7A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Ehun urte bizi-bizi</i> | | <i>Ehun urtez, aiarren bidelagun</i> |
| 6 | Hitz tantak Iñigo Gaiton
<i>Jon Amenabar</i> | 32 | Moila bazterretik Garbiñe Manterola
<i>Patxada</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Iban Egiuren
<i>New York, Salatxo tabernan</i> | 34 | Akuilua hartuta Zigor Etxaniz
<i>Kopako irudiak</i> |
| 10 | Gutunak | 35 | Nire honetan Iñigo Gaiton
<i>Irla txikia herrian</i> |
| 12 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Oriotarren 1930eko errebote-partida Saran</i> | 37 | Osasuna Leire Izagirre Urkizu
<i>Begetarianismoa</i> |
| 17 | Herrian galdezka | 39 | Euskara Josi Roig
<i>Euskara, lehentasun kontua?</i> |
| 18 | Erreportajea Aritz Pardina
<i>Gazteak krisiaren aurrean</i> | 40 | Albiste laburrak |
| 24 | Bazkietza | 42 | Plazan bazan |
| 25 | Ikasleak idazle Zingira Eskola | 44 | Zerbitzuak |
| 26 | Erreportajea Aiora Larrañaga Solaberrieta | 45 | Agenda |
| | | 46 | Hasi bertsotan Iñaki Alkain |

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Iñaki Iturain
Aritz Pardina
Garbiñe Manterola

Zigor Etxaniz
Leire Izagirre Urkizu
Josi Roig

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

IZARRA ELEKTROGAILUAK

TOP21
Tien21

529€
459€
399€
379€
199€
139€
149€
799€

ETORRI ESKAINTZAK IKUSTERA!

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

KAÏOA

kaioa_denda
www.kaioa.es

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24orduz 688 88 65 36 (Larrialdiak)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Ehun urte bizi-bizi



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Lur Alkartasuna Kooperatibak ehun urte bete dituela-eta erreportajea idazten hasi nintzen arte, ez nekien kooperatibak aiarrentzat zer nolako garrantzia zuen. Hori bai, gaian sakontzen hasi orduko, ohartu nintzen kooperatiba denda soil bat baino askoz gehiago dela, herriaren historiaren eta aiarren eguneroko istorioen testigu izan delako.

Nekane Arrizabalaga Aiako alkateak eta Teodoro Zuloaga kooperatibako lehendakariak erreportajea aipatzen dutenez, herritik herriarentzat sortutako proiektua izateaz gain, herritarren bidelagun izan da ehun urtetan zehar Lur Alkartasuna Kooperatiba, eta horregatik estimatzen dute horrenbeste herritarrek. Aiarren iritzia jakiteko herritarren artean galdeketa egitera joan nintzenez, gainera, adineko gizon batek esan zidanak begiak ireki zizkidan: “Ezinbestean zaindu behar dugu kooperatiba, herriarentzat oso baliotsua delako. Pixkanaka-pixkanaka herrian genituen beste hainbat zerbitzu ixten joan dira, eta hori benetan kezagarria da geurea bezalako herri txiki batentzat, oso zaila delako berriz ere horiek martxan jartzea. Horregatik, zaindu behar dugu beti gure ondoan izan den kooperatiba. Baliteke merkataritza gunen handietan eskaintza handiagoa izatea, baina horietara joateko nahi eta nahi ez kotxea hartu behar dugu aiarrak, eta kooperatiba, berriz, hemen bertan dugu”, zioen.

Herritarrei eskaintzen dieten gertutasuna da, hain zuzen ere, Aiako Lur Alkartasuna Kooperatibaren eta Orioko beste hainbat denda txikiren giltza eta indargunea. Kooperatiba izango da, agian, Aian eta Orion ehun urte betetzera iritsi den bakarra, baina hala eta guztiz ere, badira hutsik egin gabe hamarkadaz hamarkada herritarren ondoan izan diren denda eta negozio txiki gehiago; herriko familietako bost belaunaldi ezagutzera ere iritsi dira batzuk. Ez da makala, gero!

Beste zenbait berriagoak izan daitezke, baina berdin-berdin betetzen dute denda txikien funtzio soziala. Egutero goizean goiz pertsiana zabaldua, herriko giroari eta herritarren arteko kohesioari bizirik eusten baitiote, bezeroekin kontu-kontari arituz eta herritarren zoriona eta atsekabea partekatuz (psikologo lanak ere egiten dituzte askotan dendari txikiek). Gehienek, gainera, beren denbora libre eta jai egunak sakrifikatu behar izaten dituzte, herritarrei ahal den zerbitzurik onena eskaintzeko. Herriaren historiaren testigu dira, herritarren bidelagun izanda, istorio txikien bidez, eraikitzen delako herri baten historia. ■■■

HERRITARREN BIDELAGUN IZANDA, ISTORIO TXIKIEN BIDEZ ERAIKITZEN DA HERRI BATEN HISTORIA

Jon Amenabar

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Jon Amenabarrek (Orio, 1981) hemezortzigarren denboraldia du Orioko Kanpinean. KARKARAK belarra mozten harrapatu du, arratsalde eguzkitsuan; lehen begiratuan, udaberriak kanpineko bazter guztietan egiten du bor-bor.

Eguraldi honekin, kanpina ez da lanerako tokirik txarrena izango.

Aire zabalean lan egiteak alde on asko ditu, bai. Horrez gain, bisitari gehienak opor giroan etortzen dira hona, eta aldartea ere halakoxea izaten dute, alaia eta lasaia gehienetan. Ez da lantoki txarra, ez.

Zer lanetan jarduten duzue mantenuko langileok?

Belarra mozten egiten dugu denbora gehiena. Kanpinak lur eremu zabala du, eta belarra sarri moztu behar izaten da; urte garai honetan, are maizago. Landaresiak ere bai. Gero, bungalowetan konponketak egitea ere tokatzen zaigu, zaborra biltzea, pintaketak egitea, igerilekua txukun mantentzea... Denetik.

Lehor antzerakoa ari da izaten udaberria. Belarra ondo ari al da hazten?

Azken egunetan motelduta igarri dut. Martxoan indar handia zuela iruditu zitzaidan, lehen mozketa egindakoa. Orain, ura ere bota behar izan diogu, toki batzuetan ez delako ari ondo hazten. Egia esan, udaberrian ura bota behar izatea ez da ohikoa izaten hemen.

Gauz ere egoten zarete kanpineko sarreran, sereno modura. Misteriorik biltzen al du gauak hondartza alde honetan?

Aurten, sekula baino gutxiago. Etxeratze ordua hamarretan jarri zutenetik, arimarik ere ez da ibiltzen inguruan. Kanpineko kasuan, bezeroek hamarretarako haien partzeletan egon behar izaten dute. Guk gaueko hamaiketan hasten dugu gaueko txanda, eta egun askotan, goizeko zazpiak arte ez dugu inor ikusten.

Dena den, bai, normalean izaten dira anekdotak edo gertaera xelebreak, batez ere uda aldean: gauz igerilekura salto egin duen jendea, kanpinera balantzaka iritsi denari partzelaraino

lagundu behar izatea... Kanpinean gertatzen dena, kanpinean geratzen da! Kar-kar.

Autobide azpian autokarabana pilaketa handia izan zen Aste Santuan. Atzeman al duzue hori kanpinean ere?

Autokarabana kopuruaren gorakada ez nuke aurtengo urtera bakarrik mugatuko, duela hamar urte hasi baitzen joera hori, eta areagotzen jarraitzen du. Furgonetekin ere antzekoa gertatu da. Aste Santuari dagokionez, hala da, aurten adina autokarabanarik ez dut sekula ikusi autobide azpian.

Orioko Kanpinak zer bereizgarri du bisitarentzat?

Ondo zaindutako tokia dela esaten dute askok, eta oso garbia; maiz azpimarratzen dute bezeroek garbitasunaren kontua. Dirudienez, arreta pizten du hemengo txukuntasunak. Gero, inguru oso lasaian dago kokatua, eta familia girorako oso egokia dela entzun diet askori.

Kanpin zaharra faltan bilatzen duen nostalgiko askorekin egiten al duzu topo?

Lehenengo kanpinean izaten zen giroa faltan botatzen dutenak badaude, mugimendu eta bizi handia zuelako, baina bezeroen tokian jarrita, uste dut kanpina orain hobeto dagoela; instalazio eta zerbitzu aldetik bai, behintzat. Jendea oso gustura sumatzen dut.

Azken bi hamarkadetan kanpina asko aldatu dela bistakoa da.

Kanpina txikitzeo obra egin zenean egoera zailak tokatuko ziren, toki finkoa zuen jende bat partzelarik gabe geratu zelako. Liskarrak ere izan ziren, jende askorentzat oso berezia zelako kanpina. Murrizketa hori albora lagata, kanpinak gerora eboluzio ona izan duela esango nuke, aldaketa etengabea egon baita. Urte asko dituzten instalakuntzak eraberritu egin dira, bungalowak jarri ziren, elektrizitateko zirkuitu osoa berritu da, eguzki plakak ere badaude jarrita harrerako eraikinean... Normala den bezala, aldaketak onartzea kostatu egiten zaio jendeari hasieran, baina bezeroen ongizateari begira jarrita, kanpinak asko irabazi duela iruditzen zait. ■■■



New York, Salatxo tabernan

ARGAZKIA ETA TESTUA: IBAN EGIGUREN

2018an egin nuen New Yorkera aspalditik amestutako bidaia. Betidanik izan dut hara joateko gogoia, eta argazkilaritza munduan murgildu nintzenetik, amorratzen nengoen kamerarekin hiria esploratzeko. Hamar egun egin genituen han bikotekideak eta biok, inpresio handia eragin zigun hango kaleetako bizitzak. New York toki aparta da argazkiak egiteko. Hiritarrak oso ohituta daude kameraren aurrean egotera, eta fotoak egiten ari zarela ikusitakoan, berehala egiten dute keinuren bat. Hemen gertatzen denaren kontrakoa da. Orain, bidaiako argazkirik berezienak Salatxo tabernako erakusketan jarri ditut. Aukeraketarekin, New Yorkeko kaleetako jendearen aniztasuna erakusten saiatu naiz. Ahaztu gabe, eskerrak eman nahi dizkiet Salatxoko lagunei, bigarren aldiz nire lana erakusteko aukera emategatik. ■





Agur eta eskerrik asko!

ZINGIRA ESKOLA

Bederatzi urte, erraz esaten da! Bederatzi urtez hezkuntzarekin amesten, eraikitzen, ikasten, tarteka trabatzen, eta berriz kokatzen. Bederatzi urtez hazten, Zingirari esker hazten, umeak zein helduak. Eta orain, eskerrak emateko momentua iritsi zaigu, eskerrak eman eta agur esan. Gure bidea ez da bukatzen, baina beste norabide bat hartu du: datorren ikasturtetik aurrera ez gara Zingiran egongo.

Bagoaz, eta penatan gaude. Bederatzi urte hauetako zikloa itxi eta hainbeste gauza bizitzea baimendu digun espazioa uzteak dolu prozesu bat irekitzen digu ezinbestean. Baina, era berean, ilusioz gainezka goaz, ate berri bat irekitzeak ematen duen "hasiberriek pozaz", Ruperrek dioen moduan.

Eskerrak bihotz-bihotzez, hezkuntza proiektu honen parte izan zareten familia guztiei, askatasunaren eta haurrekiko errespetuaren ideiak errealitate bilakatzeagatik. Zuek izan zarete proiektuaren zutabe. Eskerrik asko umeen bidelagun izan zaituzteguno ere, zuen begirada eta akonpainamendu fin hori gure umeentzat urrea izan delako. Eta eskerrik asko Orioko herriari, pixkanaka-pixkanaka irekitzen joan den proiektua, herriko beste bat gehiago izateko erakutsi duzuen borondateagatik.



Bide berria abiatuko du datorren ikasturtean Zingira Eskolako hezkuntza proiektuak.

ZINGIRA ESKOLA

Ederra da bizilagunak gertu sentitzea. Gemma eta bere ardiak korrika ikustea, goizero Makatza Txikiko Xerpa eta Malko txakurren egun onak jasotzea. Zuen ezti eta kakiek goxatu dituzte gure hamaiketakoak! Ubeguneko bankuan eserita dagoen emakumearekin begirada batez agurtzea ere oso berezia da. Ederra da herrira jaitsi eta oriotarra sentitzea. Gozategikoek haien familia bagina bezala zaintzea, Katu-Horian etxean bezala sentitzea, herriko dendetan barrena

ESKERRAK BIHOTZ-BIHOTZEZ, HEZKUNTZA PROIEKTU HONEN PARTE IZAN ZARETEN FAMILIA GUZTIEI

ibiltzea, Karkaran egin diguten abegi ona bizitzea, liburutegian literatura maitatzen jarraitzea, hondartzan nahiz parkean gurutzatutako aitona-amonekin hitz egitea... Plazera da zuek ezagutu izana! Eta ederra da beste ikastetxeetako irakasle eta Udaleko langileekin elkarlanean aritzea ere. Egun berezietan denok bat egin eta herriko ikastetxeetan zenbat haur eta gazte bikain dagoen konturatzea. Ederra da zuekin guztiokin topatu izana.

Elkarrekin egin dugu orain arteko bidea, elkarrekiko harremanean elikatu gara, eta zaudete lasai, ondare hori ez baita alferrik galduko. Zama izan den guztia bazterrean utziko dugu, baina elkarlanean aberastu gaituena gure izaeraren parte da dagoeneko. Ikasketa eta bizipen horiek guztiak hartuta goaz abentura berrira.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Agur denoi, edo gero arte, batek daki! Akaso bidean elkar topatuko dugu berriro. Gu erraz aurkituko gaituzue: *Xirimiria* egiten duen egunetan atera kanpora, busti goitik behera, zapaldu belarra oinutsik, egin salto putzuetan, edan euria eta... begiratu ingurura, hantxe egongo gara gu jolasteko gogoz!

Arraunaren Unibertsitatea

ORIO ARRAUNKETA ELKARTEA

Egin dugu OAeren ohiko batzarra. Iaz data jarrita zegoen, eta pandemiagatik atzeratu behar izan genuen; aurten, azkenean, aurkeztu dugu gure proiektua bazkideen aurrean. 40 bazkide inguru etorri ziren Arraunetxera. Batzarra oso parte hartzailea izan zen, dinamikoa, eta hori ariketa sanoa eta ona da gure ustez. Puntu guztiak aho batez onartu ziren, eta aurrera goaz denok batera.

OAeren proiektuak sei hanka ditu: arraun eskola, goi mailako arrauna, Arraunetxeko zerbitzuak, nazioarte, babesleak eta denda. Orain arte hartutako eta aurrerantzean hartuko diren erabakiak beti egongo dira hanka horiek indartzera bideratuta. Nola indartu arraun eskola? Zer egin goi mailako ontziek banderak irabazten jarraitzeko? Arraunetxe eraikinari etekina nondik atera? Nazioarte eta Orioren arteko aliantzak? Nola lortu gure babesleak zaintzea

garai zail hauetan? Babesle berriak? Dendari martxa gehiago nola eman? Webgune berria aurten bai? Galdera hauei erantzunak ematen ari gara.

Arraun eskola gazteen unibertsitatea izatea nahi dugu. Zortzi entrenatzaile dauzkagu 110 neska-mutilekin lanean. Aurtengo gazteen emaitzak bikainak izan dira, eta hortik sortuko dira etorkizuneko arraunlariak, entrenatzaileak, boluntarioak, presidenteak, zuzendaritzako kideak... Udarako webgune berria aurkeztuko dugu, besteak beste gure materiala eskuragarriago egoteko.

Gure proiektuaren txapela izango den marka berria ere

ZORION AGURRA



Zorionak Hodei!

Hodei Sanzek judoko gerriko beltza lortu du, proba gogorra igaro ondoren, eta aitona eta amonak lorpenagatik zoriondu nahi zaitugu. Segi horrela!

aurkeztu dugu. Armariak betikoa izaten jarraituko du. Armarriz ez da aldatu. Are gehiago, armarritik jaio da marka berria. Biek ordezkatzuko dituzte gure ekintza guztiak. Eskerrik asko zintzo eta fidel gure ondoan zaudeten guztioi! Aupa Orio! ■■■

JAIOBERRIAK

- **Martin Etxezarreta Yeregi.** Orion, apirilaren 7an.
- **Xuhar Osa Erdoiza.** Orion, apirilaren 7an.
- **Nere Altuna Lertxundi.** Orion, apirilaren 11n.
- **Janitz Gartzia Beldarrain.** Orion, apirilaren 15ean.
- **Martxel Olaskoaga Alcalá.** Orion, apirilaren 22an.

HILDAKOAK

- **Josu Luis Irigoien Arriola.** Aian, martxoaren 27an. 58 urte.
- **Petronila Rivero Vicente.** Orion, martxoaren 27an. 89 urte.
- **Pedro Mari Barrenetxea Sarasua.** Orion, martxoaren 30ean. 68 urte.
- **Maria Luisa Perez Herrero.** Orion, apirilaren 6an. 88 urte.
- **Juan Huego Aguirre.** Aian, apirilaren 11n. 90 urte.
- **Juan Mari Aldai Manterola.** Aian, apirilaren 18an. 87 urte.
- **Pako Izeta Lertxundi.** Aian, apirilaren 24an. 83 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Oriotarren 1930eko errebote partida Saran



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: ITURAINEN ARGAZKI ARTXIBOA

Historian zehar, euskaldun batzuk saiatu dira Euskal Herriari kanpotik ezarri zaizkion muga politikoak apurtzen, zubiak eraikitzen, Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunen arteko harremanak sustatzen eta indartzen. Ahalegin horien adibide dira artikuluko honetan agertutako direnak.

2020ko azaroko azken hiru asteetan ETB1ek igandeko meza Orioko San Nikolas elizatik eman zuen. Ez zen hori EITBren plana, Sarako herritik ematekotan ziren-eta; baina izurritearen ondorioz Iparraldean elizak itxita zeuden

garai horretan, eta horregatik erabaki zuten Oriotik ematea.

Orain urte batzuk Aitor Sarasuak, Iparraldeko Itsasu herriari bizi zen familia oriotarreko mutilak, bertsoen bidez Itsasu Oriorekin lotzeko asmoa proposatu zion Orioko Errikotxia bertsozaleen elkarteari, Itsasutik Itsasora izendatutako ekimenean joan-etorriko bi bertso-saio izango ziren bi herriotan. Aitorren gaitzak eta heriotzak egitasmoa horretan geratzea ekarri zuen, asmo hutsean. Oraingo.

1995etik 2000ra, Udaleko Euskara eta Kultura batzordeak Iparraldearen Eguna antolatu ohi zuen udako egun batean. Egun osoko jaia izaten zen, eta

beti etortzen ziren Iparraldeko kantari eta dantzariak edo hango txarangak.

XX. mendearen hasieran, Lehen Mundu Gerra odoltsu hartan Iparraldeko mutil gazte anitz hil zen ("euskaraz baizik ez zekiten haiek, *morts pour la patrie*"). Hildako gazteen artean pilotariak ere asko izan ziren. Erreboteko modalitatea galzorian geratu zen, galtzeko arriskuan. Orduan oriotar bat ibili zen hango herrietan gazteei jokatzen erakusten, joko berreskuratzeko. Bittor Enbil zen gizon hura. Iparraldeko pilotari eta pilotazaleek omenaldi hunkigarria egin zioten Enbili 1930eko abuztuan Orioko plazan bertan.

Urte berean, 1930ean, partida bat jokatu zuten Lapurdiko Sara herri txiki eta ederreko errebote-plazan bertako taldeak eta Oriokoak. Sarako norgehiagokaren berri eman zuen Ramon Berraondo kazetari eta idazleak, *Guipuzcoa deportiva aristocratica* aldizkari kronika koloretsu batean: *Apuntes retrospectivos del juego de la pelota en el País Vasco*.

Aldizkariaren ale bateko orduan pezeta bateko prezioa zuen. Gaur egun guretzat ez du preziorik; balioa bai, handia: saratarren eta oriotarren arteko topaketa haren berri ematen digulako, eta baita Berraondoren zubigintzaren



Sarako Ikastolako haurrak 2015eko irailean, bisitan Orion: Arraunetxan arraunean, apaiz etxeko Bitor Enbilentzako bertsoa kantatzen eta Balea elkartearen bertsoan.

ahaleginarena ere.
KARKARArako euskaratu dugu.
Hauxe da kronika.

Sara eta Orio aurrez aurre

«... Nola diren gauzak! Oraintxe idazten ari naizen logela honetan bertan idatzi zuen Euskal Herriaz Luziano Bonaparte printzeak XIX. mendearen erdialdean, Urdaxetik barrena Nafarroatik Sarara etorri zenean. Gelako bi leihoak herriko pilotalekura zabalik daude; eta leihoetatik, atzo bezala gaur, ikus daitezke bertan jokatzeko dituzten errebotek-partidak. Pilota beltza da, bizia, eta gogor-gogorra, kantxaren alde batetik bestera jaurtitzen dute. Oraingoan nire gelako pertsiana jo du.

Gaur jokatu den norgehiagokak ikusmin berezia sortu du; aspaldiko bi arerik jokatu dute, Sarak eta Oriok. Pirinioen bi aldeetako herriek beti izan dute grina beren artean. Gaurkoa ere lehia estua izango da, nagusi zein den erabakitzeko. Goraipatzekoa da Gipuzkoako herri txiki horren paradoxa: arrantza portua duen itsas ondoko herria izanik, betidanik eman ditu arraunlari indartsuak, bikainak; baina, era berean, erreboteko jokalaria onenak ere bai.

Eguzki beteak dakarren argitasunak ikusgarri egiten du plaza. Kirol agerraldi zoragarria eskaintzeko toki ezin



1930eko abuztuaren, Iparraldeko pilotariek eta agintariek Bittor Enbili Orioko plazan egin zioten omenaldiko bazkari jendetsua.

aproposagoa da, antzinako Joko Olinpikoetako estadioa bezala. Edertasuna paregabea da. Gelatik dakusadan koadroari marko ezin egokiagoa ematen diote han urruti ageri diren euskal mendiek, berdetasun eta handitasun dotorean, alai eta irribarretsu, eguneko orduaren eta zeruaren kolorearen arabera egokituta.


Errebotek plazako harmailak jendez gainezka daude. Ikusleak zain, irrikaz, pilotariak noiz plazaratuko, partidari hasiera emateko. Inguruko herrietako pilotazale guztiak bertaratu dira. Gizonezkoak, euskal txapela buruan eta igandeetako traje beltza soinean. Emakumezkoen jantzi ikusgarriek, kolore anitzez apainduriko oihalek, ezin

**ORIO TAR BAT IBILI ZEN
IPARRALDEKO GAZTEEI
ERREBOTEAN
JOKATZEN ERAKUSTEN:
BITTOR ENBIL**

adierazizko xarma dute. Irribarrea darie haien aurpegi gazteei, irrika biziz itxoin baitute urtebetez herriko festa noiz iritsiko, urrun den maitalearen itzulera itxarongo luketen bezala.

Atletak zuriz jantzita doaz, goitik behera, batzuek gerriko gorria eta besteek urdina dutela, xistera eskumuturrean ondo lotuta. Sarako Lemoine eta Goyetxek kilo gehitxo dute, baina beso indartsuak, adinaren eskarmentua, eta gaztetan bezalako begi zoliak. Pantxo Elizondoko baztandar ilehoriak planta liraina du. Shantako da etxeko taldearen sakalaria, Larrun mendiaren magalean Beratik bi kilometro eskasera bizi den nire adiskide ona. Lehen Mundu Gerran alemaniarren gas itogarriek ezin izan zuten harekin, eta hortxe segitzen du Sarako errebotean.

Oriotarrek sakalari aparta ekarri dute, Gipuzkoako kostaldeko arrantzaleen itxura du: altua, tentea, gihartsua, sudur luzea... Orioren



Sarako frontoia, XX.mendearen hasieran. Hor lehiatu ziren 1930ean oriotarrak eta saratarrak.

ordezkaritza Enbil aita-seme ospetsuek osatzen dute. Haiekin batera, usurbildar bat, Rekondo, mutil eder beltzarana, beso indartsukoa.

Partida hasi da

Partida hamaikak puntuan hasi da. Grina handia antzematen da harmailetan. Pilota plazaren alde batetik bestera dabil, hegan, jokalarien beso gihartsuek bideratuta. Ikusleek burua ezker-eskuin mugitzen dute, pilotaren atzetik. Tantoak, marrak, jokoak... bat bestearen atzetik. Ordubetetik gora gelditu gabe, baina orain eguerdia da, Sarako elizako kanpaiak joka ari dira hamabi aldiz. Angelusaren garaia da, eskularruak eta zumezko xisterak geldirik daude, apal, brontzezko kanpaiak aginduta; txapelak burutik eskuetara, erabateko isiltasuna nagusitu da errebote plaza osoan; hamar pilotariak eta milaka ikusleak otoitzean batu dira apaizarekin.

Atsedanak grina handiagoa ekarri dio eguerdiaren osteko jokoari. Shantakok bikain

sakatu du. Lapurtarrak ahalegin betean dabilta gipuzkoarren jokoari aurre egiten. Oriotarrek talde orekatua dute, Enbil zaharra buru dutela. Beterano kementsua sasoi betean dago oraindik ere. Sakalari oriotarra indartsua eta segurua da. Sarakoek nahiko lan badute haren sakeei ondo erantzuten. Jokaldi on asko dago partidari;

eta ikusleek txalo-zaparrada ederrekin saritzen dituzte. Enbil semeak, Enrikek, boleaz pilota udaletxearen teilatuaren gainetik bota du, 150 metro egingo zituen airean erori gabe.

Gipuzkoarrak nagusitu dira; haientzat da kirol saioaren ohorea. Ikusleak, zutik, esku-zarta eta oihu, irabazleei begirada kendu gabe, pozik daude, ikuskizun bikainari esker ona erakutsiz. Herria inguratzen duten mendien gainetik eguzkia irribarretsu ageri da. Orain arte hutsik zeuden herriko kaleak errebote-plazatik datorren jende gazteaz betetzen hasi dira; pozik dabilta, bada buila eta zalaparta. Pirinioen atariko



1934ko maiatzaren 13an, Donapaleuko frontoian, Bittor Enbil errebote taldeko jokalariekin.

herri menditsua jaietan da, eta gaurko pilota partidak inguru guztiaren erdigune bihurtu du.

Pilota, arin-arina, txistua eta euskara

Ez dago errebote-partida bezalako ikuskizunik gainerako kiroleetan, ez footballea, ez criketa, ez zezenak. Pilota jokoa eskola da gazteriarentzat, energia fisikoa eta morala ematen dien

eskola; Euskal Herriko plazetan jokatu ohi diren lehia jator, eder eta sutsuetan gizon indartsu eta bizkorrek moldatzen dituen.

Bada dioenik inoiz gertatzen bada gure herrietan gazteriak euskal arin-arinak ez dantzatzea, herriko plazan txistularien aireak ez entzutea, edota pilota jokoa alde batera uztea, horrek esan nahiko duela gure arbasoek emandako hizkuntza zaharra

ere, euskara, galzorian izango dugula, euskaldunok arima galdua izango dugula; eta Euskal Herriak ez duela izango izen horren jabe izaten segitzeko eskubiderik, norik eta bertako seme-alabek berek galtzen utzita.

Eta, orduan, Euskal Herriari ezingo zaio ohorerik egin, gaur Saran pilotari gipuzkoarrek eta lapurtarrek, angelusaren orduan, txapela eskuan, egin dioten bezala».

ATE IREKIAK

Maiatzak 27

9:00 - 19:00

Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- AROTZERIA ETA ALTZARIGINTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA BETESIAK

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

Ziklo guztiak euskara hutsean

• **ELEANITZA:** ziklo hauetan modulu batzuk **ingelesez** egiteko aukera



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!





COVID-19ren
 eraginaren
 prebentzio
 neurriak betetzeko
 jarraitu
 zure lanbidea

www.izarraitz.eus

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII
 Altamira auzoa z/g. 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
 Tel. 943 85 21 74 · bulegoa@izarraitz.eus







%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Lizaso
Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



Katu
Horia
Aibaitaritzea klinika

ESTROPALARZI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrigilak
668891129



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

MENDIZABAL
AROTZEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleatik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com




narau
school & translations




www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com



NIKO
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa



garraioak



ibilbideak



kamarak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Nola bizi izan duzu Imanol Alguacilek Realarekin lortu duena?



JESUS MAKAZAGA

Zer esatea nahi duzu... Imanol mutil apala izan da beti, oso gertukoa jendearekin tratuan. Egia esan, oraindik Orioko Futbol Taldeko mutil bat bezala ikusten dut, oso ondo portatu da beti etxeko taldearekin. Realak finala irabazi zuenean, garaipena Oriokorena ere bazela esan nion. Ni Athleticzalea izan naiz betidanik, baina Imanol Realean izanik, nahiago nuen garaipena txuri-urdinena izatea. Entrenatzaile modura gauza on asko ditu. Besteak beste, ahalegin handia egiten du futbolarekiko duen ikuspegia gazteei ulertarazten. Orion kadeteen entrenatzailea zela, jokalaria bat zelaitik ateratzen zuen behar zen denbora guztian azalpenak emateko; ez zion inporta denbora horretan taldeak jokalaria bat gutxiago izatea, gauzak ondo azaltzekotan. Aspaldian esan nuen Realeko entrenatzaile izaten bukatuko zuela; gazteekin lanean hasi zenetik, zerbait berezia zuela ikusten zitzaion.



IMANOL AROSTEGI

Kuadrillan poztasun handiarekin bizi izan genuen Errege Kopako garaipena. Merezi duelako etorri zaio hau guztia. Imanol lagun naturala da, umila, eta inoiz ez du harrokeriarik erakutsi; ez jokalaria zenean, ez orain. Finala irabazi eta gero, bideo-dei bidez konektatu genuen guztiok berarekin, bakoitzak bere etxetik, eta oso momentu berezia izan zen. Realak etxeko jendearekin talde indartsua izatea lortu du, eta nire iritziz, Imanolen izaerak asko eragin du horretan. Esaten duen guztia bihotzetik ateratzen zaio, eta oso ondo konektatzen du taldeko guztiekin. Talde izaera handia eman dio Realari; aurretik gauza bera egin zuen B taldearekin, jubenilekin, Orioko Futbol Taldeko gaztetxoekin... Aurrera begira, nik Realean ikusten dut, baina berak argi esaten du: futboleko emaitzek agintzen dute, eta gaur goian egon arren, aste gutxiren buruan behean egon zaitezke.



AINARA MANTEROLA

Poz handia ematen dit. Imanolek eta biok urte berean fitxatu genuen Realarekin, elkarrekin eman genuen Oriotik Zubietarako urratsa. Han ere topo egiten genuen, eta elkarri errespetu handia izan diogu beti. Gerora, futbola laga nuenetik erabat deskonektatuta egin ditut urte batzuk. Aspaldiko partez, Realaren eta Athleticen finalarekin bizi egin nuen futbola berriro. Noski, Realak irabaztea nahi nuen, eta ederra izan zen Imanol garaipena ospatzen ikustea. Imanol etxekoa da Zubietan, eta jokalaria ohia eta entrenatzailea izatez gain, taldearen zalerik handiena da. Horrek handitasun gehiago ematen dio lortutakoari. Karisma duen entrenatzailea da, oso pasionala; izaera sutsu hori izan daiteke bere arrakastaren giltza. Entrenamenduetan ikusten nuenagatik, saio bakoitzean dena ematen du. Gustatuko litzaidake aurrerantzean Realean jarraitzea, goian, gauza handiak lortzeko borrokan. ■■■



Gazteak krisiaren aurrean

Krisialdi batek aztoratu egiten du herritarren bizimodua, ziurtasun gabezia eragiten duen heinean. Konkreteki, egungo egoerak erakutsi du gazteak bereziki zaugarriak direla. Izan ere, lan mundura jauzi egiteko unean iritsi zaie pandemiak eragindako larrialdi egoera, eta horrek lehenik ere segurantzarik ematen ez zuen etorkizuna lausotu die. Ainara Bravok, Aitor Herranzek eta Martxel Aldaik kontatu dute nola bizi duten egungo egoera.

Testua: **Aritz Pardina**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Aiako eta Orioko gazteen egoera ez da samurra, eta krisien esanahiaz eta haien ondorioez aritu dira hiru gazte: Ainara Bravo (Orio, 2002) Mekanizazioko goi mailako ikasketak egiten ari da Zubietan; Aitor Herranzek (Fortaleza, Brasil, 1998) Sukaldaritzako oinarrizko lanbide heziketa zikloa ikasi zuen Usurbilen, eta Itsasargi okindegian egiten du lan; eta Martxel Aldai (Aia, 1997), azkenik, EHUko Ingeniaritza mekanikoko ikasketak bukatzeaz dago. Hirurek azaldu dute etorkizunarekiko kezka.

Abiapuntu moduan, eta krisiaren esanahia osatzeko, Joxe Azurmendi pentsalari zegamarraren honako hausnarketa izan dute hizpide: “Krisi batek mundu baten amaiera azaltzen duela esan daiteke, bi zentzutan azaldu ere. Batetik, ekonomia paralizatzen da. Hau da, krisi batek ekonomia birmoldatzea eskatzen du. Bestetik, berriz, mundu bat amaitutzat ematen da, hots, herritarrek bizimodua errotik aldatuko zaienaren ustea garatzen dute. Horrek, gainera, hirugarren ideia batera garamatza: krisiak haustura dira funtsean, eta uste zaharrak problema berrien bitartez gainditzeko premia sortzen dute. Noranzko berriak, ordea, kolektiboki sortu eta definitu behar dira”.

Gazteek, ideia hauek direla eta, gauzak hobetu daitezkeenaren ustea badute ere, etorkizunarekiko ardura adierazi dute: haien aburuz, “guk egindako kalteek guri ez ezik, bizitza mota guztiei eragiten diete”. Bravok, adibidez, esan du “zer pentsatua” ematen diola “zerbait gaizki egiten ari garenaren kontzientziak. Adibidez, gu iazko martxoan etxean ezkutatu ginenean, natura egun gutxitan eraberritu zen, eta horrek hausnarketara eraman beharko gintuzke”. Adierazpen horrek, funtsean, bizitza eraberritzeko bidea malkartsua dela erakusten du, ez baitu gure mundua soilik barnean hartzen, baizik eta bizitza bere esanahi zabalenean. Dena dela, bakoitzak bere erara, baina hiru gazteek gogoz daramate oraingoan ezarri zaien zama.

Ildo horretatik, garbi dute pandemiak eragin duen krisiak “elkarbizitza antolatzeke nozio eta politika berriak jorratzeko beharra” ekarriko duela eta, hori gutxi balitz, eurek nozitu beharko dutela etorkizun berri bat eraikitzeak eskatzen duen nekea. Herranzek iritziak, ordea, eraldaketa horrek ez du pandemiarekin erlazio zuzena: “Ez ditut batera ikusten. Nik uste pandemia gabe ere aldaketa hori emango litzatekeela, lehendik ere sentsibilizatuta baikeunden ingurumena zaintzearen eta gure produkzio erritmoa sostengagarriagoa egitearen gainean. Gure belaunaldia balio horietan hezia izan da”.

Hiru gazteak multzo bereko partaide badira ere, iritzi kontrajarriak dituzte. Adibidez, Aldai adierazi du aldaketa oro “egungo sistemaren barruan” emango dela eta, horrenbestez, gaitza izango dela mundualdi honek behar duen funtsezko aldaketa ezagutzea. Guztiak bat datoz, ordea, krisi ororen aldebatasunean: ondorio ekonomiko nabarienen azpian mundua antolatzen duten sustrai ideologikoak daude eta, funts hori aldatu ezean, zaila da egoera materialak aldatzea.

Halako gai zabal bati ertzak jartze aldera, 2008ko eta oraingo krisiez iritzia eskatu zaie hirurei.

**GAUZAK HOBETU
DAITEZKEELA USTE
BADUTE ERE,
ARDURATUTA DAUDE
ETORKIZUNAREKIN**

**GAZTEEK SENTITZEN
DUTE EUREK NOZITU
BEHARKO DUTELA
ETORKIZUN BERRIA
ERAIKITZEKO NEKEA**

"Zaila da etorkizunarekiko ikuspuntu baikorra izatea"

AINARA BRAVO IKASLEA



Oroitzen duzu 2008ko krisia? Haren ondorioarik nabaritu al duzu?

6 urte nituen krisi hura gertatu zenean, eta ez dut oroitzen. Ondorioak ere ez ditut nabaritu: ez dut zailtasunik izan ikasketak egiteko. Oraingo krisiak eragin handiagoa izan du nigan, normala den bezala. Adibidez, lehengo urteko martxo hasieran praktikak egiteko aukera nuen berez, erdi mailako zikloko bigarren urtean nengoen. Ordea, Ondozabal enpresak eskaintako aurkezpenaren ondoren, hiru eguneko praktikak egin eta kito, pandemiak harrapatu gintuen bete-betean. Txosten bat egin behar izan nuen, eta horrela amaitu ziren nire erdi mailako ikasketak.

Bestelako zailtasunik izan al duzu praktikak egiterako garaian?

Ez, guztiz aurkakoa. Ni ikasten ari naizen lanbidean jendea

behar da eta, gehienbat, emakumezkoak. Adibidez, Zubietako lan eskolan andrazko langileak behar dituztela azpimarratzen dute beti eta, alde horretatik, pandemia aurretik niretzat erraza zen praktikak egin eta lan munduan aukerak izatea. Hori bai, enpresak ez daude gu ordaintzera behartuta. Orokorrean, zaila izaten da ordaindutako praktikak ezagutzea.

Gaur egungo egoera kontuan hartuta, nola egiten diozu aurre lan munduari?

Kezkarekin, praktikak egin ez ditudalako, nagusiki. Ezingo ditut inoiz berreskuratu eta, hain justu, hori izaten da lan elkarrizketa batean egiten dizuten lehen galdera, ea praktikak egin dituzun, alegia. Nik, orain dudan formakuntzarekin, praktikarik gabe, nekez aurkituko nuke

lana. Suertez, goi mailako zikloa egiten ari naiz aurten, lehenengo kurtsoan nago eta, dakidanez, praktikak normaltasunez egiten ari da bigarren urteko jendea. Duala egin nahiko nuke, ikasi eta lana eginaldi berean, hartara praktikak amaitzean enpresa berean lanean hasteko.

Etorkizunarekiko ikuspuntu baikorra duzu?

Zaila da ikuspuntu hori izatea. Oso zaila izango da lehengora bueltatzea eta, zentzu horretan, nahiko ezkorra naiz.

Desiragarria litzateke, zure ustez, lehengora bueltatzea?

Alde batetik, ez litzateke gaizki egongo. Baina pandemia honek agerian utzi du okerreko bizimodu bat generamala, hausnarketa ahalbidetu duela iruditzen zait. Bizimodua aldatu behar dugula garbi dago zentzu horretan. Izurriteak, gainera, zaplazteko bat eman digu, prozesu hori bizkortu du.

Zein erantzukizun duzue gazteek etorkizunaren noranzkoa definitzerako garaian?

Nik uste dut zati handi bat guri egokitzen zaigula. Dena dela, esfortzuak kolektiboa izan behar du, gizarte osoarena. Gauzak ez dira bere kabuz aldatzen. Gazteok erantzukizun handiagoa izan dezakegu etorkizuneko lan munduan eta bizimoduaren erdigunean egongo garen heinean, baina guztiok dugu egoeraren gaineko ardura.

"Duela urtebetetik bizitzeari utzi diogu hiltzeko beldurrez"

AITOR HERRANZ SUKALDARIA

Goi mailako ikasketarik ez edukitzeak zailtasunak ekarri dizkizu lana aurkitzerako orduan?

Pandemia baino lehenago, nahiko erraz aurkitzen nuen sukaldaritzan lana. Hilabete, hilabete eta erdi behar izaten nuen lana topatzeko.

Pandemia ondoren, ordea, bost hilabete baino gehiago egon nintzen langabezian. Orokorrean, aldi bateko kontratuak izaten nituen. Maiz egin izan dut lanaldi osoan lana, baina, esan bezala, kontratuak aldi batekoak ziren.

Oroituko duzu 2008an ekonomia krisi larri bat gertatu zela. Zuk uste hark egungo gazteen lan baldintzetan eragina izan duela?

Agian bai. Azken batean, halakoen ondorioak luzaroan txertatzen dira eguneroko bizitzan. Hori bai, nire iritziz, pandemiak eragindako krisia aurreko hura baino askoz larriagoa izango da.

Nolabait, biak batu dira?

Nik uste nuen, gutxienez, ondo errekuperatzen ari ginela. Nire ustez egoera normaltzen ari zen pixkanaka, aukerak gero eta zabalagoak ziren gazteontzat, baina oraingoak guztia eraitsi du. Egoerak okerrera egingo du. Gehienontzat egoera oso larria izan daitekeela uste dut, esaterako, enpresa ixtera behartuta ikusi direnentzat eta langabezian edo baldintza eskasetan lan egiten duten langileentzat. Alde horretatik,



governuen esku-hartze handiagoaren falta sumatzen dut, ezin da hain erraz jendeak porrot egin dezan utzi.

Egun, lanean zabilta?

Bai, Itsasargi okindegian. Lan hori aurkitu aurretik, esan bezala, ia sei hilabete eman nituen curriculumak hainbat enpresatan aurkezten, eta, azkenik, Itsasargira jo nuen lan eske. Hilabete batzuk igaro ondoren deitu zidaten. Presio handia nuen lana aurkitzeko, sufritzen ari nintzen. 2020 bukaeratik nabil okindegian lanean, eta oso pozik nago.

Krisi batek badu, zure ustez, alde material edo

"PANDEMIAK ERAGINDAKO KRISIA AURREKOA BAINO LARRIAGOA IZANGO DA"

ekonomiko bat ez ezik, alde ideologiko bat?

Zalantzarik gabe. Izatez, duela urtebetetik bizitzeari utzi diogu hiltzeko beldurratik. Askok ikaratu gaituzte, eta horrek arazo psikologikoak ekar diezazkiguke guri nahiz gure umeei. Hori ere krisi bat da, deshumanizazio bat. Azken batean, gazteak gara, eta hedabideek igorri duten bertsio ofizialak ez ditu gure behar emozionalak kontuan izan. Ikuspuntu mugatu bat gailendu da ia erlijio bat bezala, ondorio larriak izan ditzaketen beste hainbat eragile azpimarratu ez dituen. Hortaz, krisiaren ondorio ekonomikoak ez ezik, beste hainbat ezbehar pairatu beharko ditugu gazteok aurrerantzean; presioa, estresa eta depresioak, kasu. Hori guztia estaltzen duten oinarri ideologikoak daude, noski.

"Nire ustez pandemiak ezkutuan zeuden joerak eta gabeziak azaleratu ditu"

MARTXEL ALDAI IKASLEA

2008ko krisiaren zuzeneko ondorioak nabaritu duzu?

Gertatu zen unean ez nuen hura ulertzeko behar adina kontzientzia. Ondorioak, ordea, nabariak iruditzen zaizkit. Azken batean, krisi bat da pilatutako kapitala eskala handiagoan balioztatzeko gaitasunik ez edukitzea, eta horrek mundu berri bat eskatzen du, ekoizpen modu berriak saiatzeari. Konkretuki, aurreko krisia aldi batekotasunean, langabezia eta beste hainbat modutan islatzen da gaur egun. Gu, gainera, belaunaldi bat gara, zeina aldaketa horietan bizi bakarrik ez, baizik eta balio horietan hezi dena.

Badago, hortaz, krisiaren normalizazio moduko bat.

Erabat. Interbentzio ideologiko bat dago lan merkatuan sartu behar duen gazteriaren gain. Hau da: aurreko belaunaldiek, 1980eko hamarkadakoek, adibidez, bete-betean bizi zuten krisia eta ondorioak zuzenean pairatu zituzten. Haiak, hortaz, kanpora lanera joatea sortutako behar bat bezala ikusten zuten. Gure belaunaldiak, berriz, hori aukeratzat du. Puntu horretaraino sartu digute mugikortasunaren eta dependentziaren ideia. Oraingo krisiak egoera hau azaleratu du.

Gaurko unibertsitatea zein egoeratan dago? Krisi egoeran jarraitzen duela esango zenuke?

Krisian dagoela esatea agian ez da zuzena, baina atentzioa ematen didana arestiko krisialdi hura Bolonia plana indarrean jartzeko baliatu izana da. Askoz lehenago sortu zen, baina 2008an bertan



hasi zen marbxan. Horrek ezintasun bat sortzen du, oraindik ere, unibertsitatea eta lana lotu eta unibertsitatea egiaz guztiotzat irigarria egiteko.

Diozunez, krisi hura hezkuntzaren ikuspuntu jakin bat bidezkozteko aitzakiazat hartu zen.

Ezbairik gabe. Hezkuntza pribatizatu nahia izan da bai Bolonia plana, bai duela gutxi aurrera eramanez nahi izan den 3+2 plana. Biek ala biek oztopatzen dute unibertsitate sarrera, hezkuntza pribatizatzea dute helburu. Arazoa, agian, garbiago ulertzen da zentro pribatuekin erkatuz gero: unibertsitate pribatuek enpresekin dituzten harremanek beste mailako aterabideak ematen dituzte eta bertako ikasleek aukera hobek dituzte.

Egoera horrek okerrera joko al du?

Nire iritziz pandemiak ezkutuan zeuden joera batzuk azeleratu ditu. Guztia bizkortu du, eta lan munduko gabeziak ez ezik, bestelako bidegabekeriak ere agerian gelditu dira.

Horrek lagunduko al du, zure ustez, etorkizunean gauzak hobetzen?

Ez. Eman diren aldaketak — jendeak mendirako hartu duen

joera, naturan bizitzearen garrantzia, denda txikietan erosteko ohitura hazi da—, sistema honen barruan eman direnez gero, masa kulturaren adierazle dira. Orain inoiz baino errazagoa da egiturazko arazoak hautematea, baina ez gara lanaren eta ekoizpenaren bestelako zerumuga bat irudikatzen gai.

Zein da gazteen papera krisi baten aurrean?

Gazteriak akumulazio fase berri batetara egokitzeko beharra du. Ordea, izurrite garaian gazteen irudi txar bat hedatu da, eta horrek ez du laguntzen.

Hedabide batzuk sarri aritu dira gazteen arau-hausteez eta, baina, etorkizunaren aurrean ditugun erronkak aitortu dituzte. Ba al da kontraesanik diskurtso horretan?

Ez da kontraesan bat. Alde batetik, egon da kriminalizazio bat, eta horren helburua da gazteok apaltzea. Ordea, diskurtso hori egiten duenak oso ondo daki etorkizunaren noranzkoa bideratzerako orduan guk erantzukizun garrantzitsua dugula. Guk dugu etorkizuneko lan-indarra, eta diskurtso horrek lan baldintza eskasak aurreko erantzun eza izan lezake ondorio. Intentzioz betetako diskurtsoa da hedabideena.

Iruditzen zaizu krisiaren beste ikuspuntu batzuk lan litezkeela?

Espektro parlamentario guztiak bat egin du eskubideen ukapenean, ezarri dituzten neurri gogorretan. Ez nuen espero aldaketaren aldeko jarrerarik, baina esanguratsua iruditu zait eskubideen ukapen arbitrarioan ezker eragileek izan duten isilatasuna. ■■■■



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net

NON DAGO KARKARA?



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali maiatzaren 19a baino lehen. **Saria:** Satxota sagardotegian bi lagunentzako otordua. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



KARKARAko bazkide Kontxi Eizagirre Peñak irabazi du Altzerri jatetxeak emandoko 2 pertsonentzako bazkaria.

AIAR

bat gehiago



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



ZINGIRA ESKOLA

Liburutegia gehiago ezagutzen

MIREN ANDUEZA LIBURUTEGIKO LANGILEA

Oso pozik joaten gara Liburutegira, eta bertako langile Miren Andueza gehiago ezagutu nahi izan dugu.

Noiztik ari zara Liburutegian lanean?

1992ko ekainaren 8tik, aurten 29 urte egingo ditut.

Gustuko al duzu Liburutegian lan egitea?

Bai, oso gustuko dut.

Zein da zure libururik gogokoena?

Hori oso galdera zaila da, baina nik lau liburu aukeratu ditut: *El secreto del tonto del pueblo*, *Inseparables*, *Azken otsoa* eta *Galgui*.

Zer gauza aldatuko zenituzke liburutegi honetan?

Eraikin aldetik ez nuke ezer aldatuko, baina liburuei dagokienez, informazio liburu, literatura gida eta aholkularitzarako baliabide gehiago jarriko nituzke. Horretan gabiltza lanean.

Zenbat liburu daude liburutegi osoan?

13.512 liburu daude liburutegi osoan, biltegian barne.

Liburuak adin tarteka banatuta daukazue?

Adinka eta gaika banatzen ditugu. Adin tarte bakoitzak kolore bateko gometxaz adierazten ditugu. Gaiak hauek dira: abentura, beldurra,



fantasia, misterioa eta umorea. Gainontzekoak, idazlearen abizenaren arabera alfabetikoki ordenatzen ditugu.

Zenbat hizkuntzako liburuak dituzue? Brailezkoren bat baduzue?

Lau hizkuntzatan daude, gehienbat euskaraz eta gaztelaniaz; ingelesez ere badauzkagu, eta gutxi batzuk frantsesez. Zeinu hizkuntzako bi liburu dauzkagu, baina brailez ez daukagu batere.

Jendeak gomendioak eskatzean, erraz erantzuten diezu?

Ez badituzte ezagutzen zaila egiten zait. Beren gustuak ezagutzeko, pistatxo bat ematea eskatzen diet.

Liburu baten barruan sartu ahalko bazenu, zeinetan sartuko zinateke?

Matilda liburuan sartuko nintzateke. Nahiz eta hasiera pixka bat gogorra izan, oso liburu polita da. ■■■



IBAI YARZA, JANIRE
ETXEBARRI, NAIA YARZA, KIMA
ERRASTI ETA SARA CHIAPPE

Agur eta gero arte!

Agian berriro elkar topatuko gara. Laster arte eta pozik bizi!

Bizitzan zehar agur mota ezberdinak egon daitezke: heriotza, bidaia bat bukatzea, gorputz atal bat galtzea, urtarok aldatzea, banaketak... Gure ustez, agur horietaz hitz egitea garrantzitsua da, nahiz eta batzuetan gogorra egiten zaigun.

Gure iritziz, agur batean eskerrak ematea oso inportantea da. Adibidez, noizbait hortzen bat galdu duzuenean, eskerrak eman al dizkiozue hainbeste gauza jaten laguntzeagatik? Edo asko maite duzuen norbait hiltzen denean, elkarrekin bizitako guztiagatik? Edo udara bukatzen denean, ur gudak egiteko eguraldia eskaintzeagatik?

Hurrengo ikasturtean ez gara hemen egongo, eta KARKARako irakurleei agur esatea tokatzen zaigu. Eskerrik asko gure testuak irakurtzeagatik. Espero dugu gurekin ongi pasa izana, barre egin izana eta, batez ere, gure ideiekin zuen buruei pare bat buelta eman izana! Guk oso gustura idatzi ditugu artikulu eta elkarrizketak.

Agian berriro elkar topatuko gara. Laster arte eta pozik bizi! Ah, eta ez ahaztu komunean bonba botatzean KArKArari agur esatea...kar, kar, kar! ■■■

Ehun urtez, aiarren bidelagun

Herriko historiaren lekuko eta herritarren bidelagun izan da azken mendean Aiako Lur Alkartasuna Kooperatiba. 1921ean sortu zuten, gerra aurreko urteetan, eta hamarkadaz hamarkada garatzen eta garai berrietara moldatzen joan da.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Utzitakoak eta Aiora Larrañaga Solaberrieta**.



Teodoro Zuloaga Lur Alkartasuna Kooperatibako lehendakaria.

Duela ehun urte baserriz osatuta zegoen nagusiki Aia, eta Teodoro Zuloaga Lur Alkartasuna Kooperatibako lehendakariak uste du Alkartasuna Kooperatiba sortu zenean, aiarrak gaur egun dituztenak baino behar handiagoak izango zituztela: “Haziak eta lurra lantzeko tresnak beharko zituzten nagusiki, eta behar horiei irtenbidea emateko asmoz sortu zen kooperatiba”. Egun, Alkartasuna denda eta Lur biltegia biltzen ditu kooperatibak, eta bazkideak harro daude eskaintzen dituzten zerbitzuez. Dena dela, argi dute lan asko egin behar izan dutela gaur egungo kooperatiba izatera iristeko. Askok izan dira mende oso batean zehar proiektuan parte hartu duten herritarrak, eta mendeurrenean aitortu egin nahi dute urte horietan guztietan Lur Alkartasuna Kooperatiban sinetsi duten aiarrak egindako lana.

Gaur egun 210 familia inguruk osatzen dute kooperatiba; ez da kopuru makala Aia bezalako herri txiki batentzat. “Herri osoaren kooperatiba dela sentitzen dugu, eta kanpotik Aiara bizitzera etortzen diren bizilagun berriak ere ari dira pixkanaka bazkide egiten. Hasiera batean, bazkide izateak ez du abantaila berezirik eskaintzen, betebeharrak baino ez. Horregatik, albiste pozgarria da guretzat bizilagun berriek ere bazkide egin nahi dutela ikustea, horrek esan nahi duelako garrantzitsua dela kooperatibak herrian eskaintzen duen zerbitzua”, azaldu du Zuloagak.

Nekane Arrizabalaga Aiako alkatearen esanetan, kooperatibak duela ehun urteko arima berarekin jarraitzen du, “herritarrek herritarrentzat sortu zutelako. Aia herrigintzaren bidez egiten dugu eta herritar bakoitzak geure alea eskaintzen diogu geure inguruari. Filosofia horri eutsi diogu herriko beste hainbat azpiegitura eta egitasmotan ere. Aia, aiarrak dira, auzolana”. Horregatik, Arrizabalagaren iritziz salerosketarako gune bat baino askoz gehiago da kooperatiba. “Elkarlanean oinarritutako eredia du ardatz. Elkarreraginaz eta jakintza eta jakin-mina partekatuz, herri txikia izanik, guztiok elkar hartuta garatu ditzakegu herriarentzat oso positiboak diren ekimen ugari”.



Helburu bera

1921ean sortu zen Alkartasuna Kooperatiba herritarrei oinarrizko lehengaiak eskaintzeko asmoarekin, eta aurrerago abiatu zuten Lur biltegia. Errepublikara garaian herriko alkate izan zen Gabino Alustiza izan zen sustatzaileetako bat. Kooperatibako lehendakariak kontatu duenez, «duela ehun urte sortu zenean gaur egungo helburu bera zuen kooperatibak: oinarrizko janari, arropa, pentsu eta lan tresnak herrian bertan erosteko aukera ematea aiarrei, kanpora joaten ibili gabe». Kontuan izan behar da duela mende bat herri batetik bestera joatea orain baino askoz neketsuagoa zela garaiko biztanleentzat, ez zeudelako gaur egungo garraio bide eta zerbitzuak. «Gainera, herri txikia da Aia, eta ez dago beste dendarik; horregatik, denetik eskaintzeko asmoz sortu zen kooperatiba».

Zuloagak uste du kooperatibak ehun urtetan zehar eutsi diola hasierako helburuari, garai berrietara egokitzeko «etengabeko ahalegina» egiten ari bada ere. «Gurea ez da ohiko janari denda, eta hasieratik saiatu gara uneoro eusten kooperatibak duen helburu sozialari, herritarren beharrei erantzuteko sortu zelako. Aian denok ezagutzen dugu elkar, eta harreman estu horri eusten saiatzen gara, nahiz eta Eroski taldearekin elkarlanean aritu. Langile guztiak aiarrak dira, herrian bizi direnak, eta horrek herritarrekin harremana asko errazten du, konfiantza giroa baitago. Gainera, norbaitek zerbait berezia behar badu, eskatu besterik ez du egin behar, eta ahal den azkarren ekartzen saiatzen gara».

Horrez gain, kooperatibak badu konpromisoa beharra dutenei laguntzeko, Amaia Garitano Alkartasuna dendako arduradunak azaldu duenez: «Ordaindu ezin dutenei aurrerago ordaintzeko aukera ematen diegu, eta etxera erosketak eraman ezin dituztenei, guk geuk eramaten dizkiegu». Herriko gazte gehienek ibilgailu propioa eta batetik bestera mugitzeko erraztasuna dute; ordea, «badira herritarrak, jende heldua nagusiki, kotxerik ez dutenak eta ezinbestekoa dutenak horrelako zerbitzu bat izatea herrian».

Lur Alkartasuna Kooperatibak herriarekin duen lotura estuaren adibidea da bere egutegia ere. Asteko zazpi egunetan irekitzen dute denda, eta urtean hiru egunetan soilik ixten ditu ateak. «Igande goizetan ere ireki egiten dugu, kooperatiba sortu zenetik ireki izan delako. Ohituraz igandetan jende asko etortzen zen baserrietatik herrira mezetara, eta asko astean egun bakarrean jaisten zirenez,

XX. mende hasierako Aiako bi argazki zahar.



Alkartasuna dendako argazki zaharra.

Alkartasuna denda herriko ospakizunen testigu izan zen urte luzez.

aprobetxatzen zuten erosketak igandean egiteko. Ohitura horiek aldatu badira ere, guk igande goizetan denda irekitzen dugu, 13:00ak arte, eta salmenta oso onak izaten ditugu, gainera; beste edozein egunetan baino hobeak. Guretzat sakrifizioa izaten da igandeetan lanera joan behar izatea, baina txandak eginez moldatzen gara”, nabarmendu du Garitanok.

Aiarren ondoan

Teodoro Zuloagaren esanetan, aiarrek estimatzen dituzte kooperatibak eskaintzen dituen gertutasuna eta zerbitzua. “Hala adierazten digute bezeroen artean egin ditugun galdeketa. Kooperatibaren garrantzia eta beharra azpimarratzen dute”, adierazi du. Gainera, koronabirusaren izurriteak sortutako ezohiko egoeran ere aiarren ondoan egon da kooperatiba, eta Zuloagak uste du horrek balio izan duela agerian uzteko kooperatibak herrian ematen duen zerbitzua. “Jende askorentzat irtenbidea izan zen kooperatiba itxialdi garaian, eta bezero kopuruan eta salmentetan gorakada handia eduki genuen”, aitortu du.

Alkartasuna dendako arduradun Garitanok itxialdi garaia “oso zaila” izan zela gogoratu du. “Ziurgabetasun garaia izan zen denontzat, eta oso urduri antzeman genuen jendea. Telebistan supermerkatu hutsen irudiak zabaldu zituzten, eta hemen ere larritzen hasi ziren herritarrak. Inork ez genekien zer zetorren, eta herri guztietan bezala, Aian ere zenbait produktu gabe geratu ginen hasieran”. 2020ko martxoa eta apirila lan askoko hilabeteak izan zirela gogoan du. Herritar askok eskerrak eman dizkiete hilabete hauetan guztietan kooperatibak egin duen lanagatik, baina, kooperatibako lehendakariak adierazi du, oraindik badela jendea ez dena konturatzen herrian horrelako denda izateak duen garrantziaz. “Herri batek oinarritzko zerbitzuak behar ditu bizirik mantentzeko. Herri txiki batentzat ez dut esango luxua denik horrelako zerbitzu bat edukitzea, merezi dugulako, baina guztiz beharrezkoa da herriari bizirik eusteko”.

Zerbitzuak eguneratuz

Hamarkadaz hamarkada herritarren ohiturak aldatzen joan dira, eta zerbitzu berriak eskaintzen ere hasi da kooperatiba. “Etxe berriak egin dira herrian, eta bikote gazte mordo bizi da etxe horietan:



batzuk herrikoak dira, eta beste asko kanpotik etorri dira. Bikote horiek haurrak izan dituzte eta, gaur egun, zorionez, haur asko dago Aian. Horrek ere erronka berriak sortu dizkio kooperatibari”, azaldu du Teodoro Zuloagak. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu kooperatibak herritarrentzat. “Internetez erosteko gero eta ohitura handiagoa dago, eta paketeak dendan edo biltegian jasotzeko aukera ematen diegu aiarrei, askotan etxeetan ez delako inor egoten”.

Denda berria

2016. urtea inflexio-puntu garrantzitsua izan zen Lur Alkartasuna Kooperatibarentzat, plazako lokaletik eskola azpiko lokalera pasatzea oso urrats garrantzitsua izan zelako. “Apustu inportantea izan zen kooperatibarentzat, eta urratsa eman aurretik aholkua eskatu genien erakundeei. Aiako Udala ere prest zegoen laguntzeko, eta elkarlan horri esker lortu genuen denda berria izatea”, aitortu du Zuloagak. Hala, Aiako Udalarekin elkarlana zuzena eta estua dela nabarmendu dute bi erakundeek. “Udalak beti babestu du kooperatiba, baita oso une zailetan ere, eta herriaren onerako den heinean, hala jarraituko dugu”, adierazi du Aiako alkateak.

Denda zabal eta eroso dute orain Aian, eta kooperatibako presidentearen iritziz, horrek eskaintzen die aukera zerbitzu ona emateko. “Solairu bakarrean dago kokatuta, eta mugikortasun arazoak dituztenek ere lasai egin ditzakete hemen erosketak, oztoporik gabe. Aurreko denda, berriz, askoz txikiagoa zen, gurpildun aulkian edo ume-kotxearekin sartzeko oso traketsa”. Hala, kooperatibako lehendakariak aitortu du denda berria ezinbestekoa izan dela zerbitzua eguneratzeko.

Iritzi berekoa da Nekane Arrizabalaga alkatea ere, aldaketak hobekuntza nabarmenak eragin dituela uste duelako. “Sinesten dut zerbitzu on bat eskainiz lortuko dugula aiarrek erosketak Aian bertan egitea eta bertako kontsumoa sustatzea”.

Dena dela, aldaketak ez dira beti guztien gustukoak izaten, are gutxiago 200 bazkideetik gora biltzen dituen kooperatiba batean. Horregatik, denda kokalekuz aldatzea planteatzen hasi zirenean, desadostasunak ere sortu ziren bazkideen artean denda berria zela eta. “Uste dut gaur egun gainditu direla denda berriaren bueltan

Teodoro Zuloaga, Amaia Garitano eta Ziortza Balerdi.

Alkartasuna Kooperatibaren denda berria.

**DENDA BERRIA
IREKITZEA
INFLEXIO-PUNTU
GARRANTZITSUA IZAN
ZEN**

**ZULOAGAREN USTEZ
DENDA BERRIA
EZINBESTEKOA IZAN DA
ZERBITZUA
EGUNERATZEKO**

sortu ziren eztabaida guztiak. Guk ahaztu dugu gertatutakoa eta, gaur egun, ez zait iruditzen egoera horrek eragindako giro txarrik dagoenik herrian”.

Etorkizuna

Ehun urte beteta, etorkizunaz hausnartzeko tartea ere hartu dute Zuloagak eta Arrizabalagak. Aiako alkateak, esaterako, nahi du kooperatiba “herritar guztien etxe” izaten jarraitzea; “baita ere, aiarren egiteko modua bizi-bizirik eustea, Aia garatzeko eta aiarren bizi kalitatea mantentzeko”.

Etorkizunari begira, Zuloagak uste du herritarren beharretara egokitzen jarraitzea eta zerbitzua eta langileak mantentzea izango direla Lur Alkartasuna Kooperatibaren erronkak. Erronkak erronka, Lur Alkartasuna Kooperatiba beste ehun edo berrehun urtez bizi-bizirik izatea espero du Zuloagak, “bestela herriarentzat galera ikaragarria izango baita”.

"Nik kooperatiban erosketa egiteko ohitura dut. Dena dela, aitortu behar dut orain askoz hobeto moldatzen naizela, plazako denda ez zegoelako egokituta mugikortasun arazoak ditugun herritarrontzat. Horregatik, orain askoz hobeto moldatzen naiz erosketa egiteko.



Batzuetan, gutxitan, joaten naiz beste herrietara erosketa egitera, baina eguneroko gauzak beti herrian erosten ditut, kooperatiban, eta oso gustura nago ematen duten zerbitzuarekin”.

AIZPEA ALDALUR



"Nik haurra nintzenetik ezagutzen dut kooperatiba, jaio nintzenetik, Aian bertan sortu bainintzen. Erosketak bertan egiteko ohitura izan dugu beti, eta gustura gaude ematen duen zerbitzuarekin, kooperatibarik gabe kotxea hartu beharko genukeelako

erosketak egiteko. Pixkanaka zerbitzuak murrizten ari dira herrian, eta beraz, kooperatiba urte askoan irekita egotea espero dut, herriarentzat oso garrantzitsua baita”.

ANDRES ODRIUZOLA

"Erosketak kooperatiban egiteko ohitura dugu etxean, garrantzitsua iruditzen zaigulako herriko zerbitzua bultzatzea. Batzuetan joaten gara kanpora Aian aurkitu ezin ditugun gauzak erostera, baina gehienetan herrian bertan egiten ditugu erosketak. Niri

denda konpletoa iruditzen zait, eta denda berria ireki zutenetik, zerbitzua asko hobeto dela uste dut, gainera. Gustura gaude herrian kooperatiba bezalako zerbitzua dugulako”.

FATIMA LARRAÑAGA





ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK GOI MAILAKO ZIKLOA **Zumaiako Institutuan**

Aurrematrikulazioa maiatzaren 31tik ekainaren 18ra
Ate irekiak maiatzak 10, 11 eta 13. 16:30-19:30

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

idazkaritza@zumaiabhi.eus · 943-89 92 53

ARGAZKI ANPLIAZIOAK



zure edo
gure argazkiekin

"Aholku profesionala eta pertsonalizatuarekin, edozein gela, txoko, saloi, bulego, lokal, taberna.... apaintzeko"



EDOZEIN TAMAINURA ARTE

info: 607 54 27 63
egigurenargazkiak@gmail.com

Lientzoan
Foamean
Egurrean
Biniloan
Metakrilatuan



EGIGUREN

Argazki Estudioa- FotoStudio

Patxada



GARBIÑE MANTEROLA

Lagun donostiar batek kontatu zidan orain 15-20 urte. Oporretan zela, enkantu handiko herri txiki bat gurutzatu omen zuen eta guztiz harritu omen zuen aurretik zuen kotxea bide erdian gelditu zenean. Zertarako eta espaloian zegoen beste herritar batekin berriketan jarduteko. Minutu dezente eduki omen zuen geldirik. Donostian imajina ezin zitekeena, bukolikoa, xarmagarria iruditu zitzaion. Nik nire onerako zera pentsatu nuen, motel! Orion hori hamar bat aldiz gertatzen da egunean.

Bartzelonan ikasten nuen garaian, handik bueltatzean herrira sartzerako eskuko frenoak jartzen nuen. Klean dabilenaren tempora lotzen baikara, nahi gabe. Hirian jendea *Allegro prestissimo* zebilen, oriotarrak aldiz *Andante moderato* martxakoak izan. Goiz buelta bat nahikoa izaten nuen pausoa mantsotzeko. Baina 15-20 urte, urte asko dira eta gure herriak izan du aldaketarik tarte honetan. Pentsa, garaiotan, 5.000 biztanletik gorakoen segurtasun neurriak tokatzen zaizkigu. Lasaitasun hura galdua genuen aspaldi.

Orain gutxi arte superheroi sentsazioarekin bizi ginela iruditzen zait. Kapa jantzi ez baina batetik bestera beti hegan. Dena egin nahi, dena egin behar. Presaka nabil! esan eta agur egiten genion elkarri. Mafaldaren bineta bat etortzen zitzaidan behin eta berriz burura. Bertan, aita eta ama ageri dira etxearen alde batetik bestera korrika eta maletak eskuetan. Etxe atarian Mafaldak bere lagun Manolitori esplikatzeko dio: oporren azken prestaketak dira, ... hartzen ditugun oporren azken prestaketetatik atseden hartzeko hartzen ditugun oporrak. Hala ere, errezeloa dut azken hilabeteotan beste patxada bat dugula. Gabonen osteko asterik latzenetan kuadrillako bat topatu nuen bidegurutzeko batean. Ni bizikletaz nintzen, bera kotxez. Ilun ziren kaleak. Elkar ikusi, frenoak zapaldu eta hogeitaz minutuz izan ginen berriketan. Lasaitasun ederrean. Zer plan hobea ostiral iluntze batetarako. Ordudanik konturatu naiz inguruko askok natura-natural egiten duela ariketa berdina. Familiakoren bat edo lagunaren bat topatu eta eskua frenora. Hitz aspertuan hasten gara, ezer hoberik, ezer beharrezkoagorik ez baitugu egiteko.

Argi dago, denok ibiltari bihurtu garen honetan, *Andante* tempoaren errekuperatu dugu. Azken asteetan, ahopeka, inguruko dezentek esan dit herria ixteak mejora galanta ekarri diela. Ate irekien garaietan malekoian zaila izan zen inor ezagunik topatzea. Gure jolas berria zapuztu ziguten: ibili, laguna topatu, frenoak bota, bost minutuko hizketaldia, aurrera. Asteburutik bueltan, lankideari aipatu nion eta bertan sutu zitzaidan. Eibarren ez omen dio inori horrelakorik aditu. Gure artean, bizi egin behar da Eibar zuloan!

Errematatzeke, galdera. Ateak irekita izan genituenean, herriko sarreretan autokarabanak erregalatu al zituzten eta ni enteratu ere ez? ■■■

**DENOK IBILTARI
BIHURTU GAREN
HONETAN, 'ANDANTE'
TEMPOA
ERREKUPERATU DUGU**



AGINAGA
— ALTZARIAK —



*Hornitu goxo-goxo zure
etxebizitza eroso
egoteko*

*Prezio paregabe batetik,
2500€...egongela, logela
eta sofa (koltxoia barne)*






Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com

RENOVALAN

Sansinenea industrialdea, B2 · Zestoa
943-44 30 01
gipuzkoa@renovalan.com
www.renovalan.com

- Birgaitze energetikoak
- Irisgarritasuna - Irogailuak
- ITE konponketak
- Arriskuak kentzea
- Urbanizazioak
- Estalkiak
- Diru laguntzen kudeaketa





Kopako irudiak

Modestaneko aparkalekua garai bateko edozein arratsaldetan, ume eta gaztetxo zosita, jolasean, korrika, bizikletaz, sokasaltoan, bote-botera, harrapaketan... baina, batez ere, futboleant. Berez, auzoko txoko guztiak dira jolasleku: muntoa, labaderoa, Benidorreko hondartza, mataderoa, kuartela, zeramika, Ondo zabaleko kamioi zaharrak, Kaxilda eta Venturaren artasoroak... Futbolerako, ordea, aparkalekua baino hoberik ez dago. Dikeko haur guztiak bertan daudela dirudi, eskolako trasteak utzi eta bokadiloa eta baloia hartuta. Adin eta maila desberdineko nahasketa kaotikoa, bi talde elkarren kontra baloiaren atzetik, marruka eta ostikoka.

Belaunerainoko galtza motzak eta anai zaharrek pasatako niki gastatuak. Azekiak, harri-txintxarra, jertseekin eginiko porteriak. Alpontxonekoak, garatetarrak, dikezarrekoak, baserrikoak, esnalekoak, aduriztarrak, makatxanekoak... etxe guztietakoak. Dikeko aldapatik ere hurbiltzen dira batzuk, bigarren portalean bizi direnak, zazpi anai-arreba...

2. Zaraguetako errekreoa. Bi kapitainak pausoak egiten. Bestearen hanka zapaltzen duena hasiko da taldea

**IRUDIAREKIN
HIPNOTIZATUTA,
EZIN DA GORAGO IGO,
PENTSATU DUT,
ZERUA JO DU**

osatzen. Badakigu zein aukeratu duten lehen, egunero errepikatzen da izen berbera. Gainontzeko guztiak, haren atzetik, errenka luzean, Klaudio, Agus, Juanito, Ramonmari, Juanma, Txanka, Carras, Axi... Bizitzako partidarik gogor eta sutsuenak ordu erdi eskas horretan. Irabaziz gero pozez matematikara; galduz gero, burumakur frantsesera. Azken minutua. *El ultimo que meta campeón.* Utzi txorradak eta pasa baloia Imanoli.

3. Kontxako bigarren igandea. 1990eko hamarkada. Arratsaldea aurrera eta mundu bat Orioko kaleetan. Banderari errezibimendua laster. Kanpa berdea garaiezina da eta atzean uzten ditu arrosak, moreak eta berdeak. (Telebistan, Imanolek ere atzean utzi ditu Alkorta eta

HAUXE BAI JENEROA!



Marcos, arean sartu da eta sekulako gola sartu dio Buyori. Jolasorduetan eta Antillako zelaian hainbeste aldiz egiten zuena errepikatu du leporaino betetako Bernabeu handian. Ezin da gorago igo, pentsatu dut orduan, ezingo du ezer handiago egin Madrili halako gola sartu eta gero, zerua jo du... Oker nengoela onartu behar).

Herriko kaleetan niki horiak eta zuritoak eta kañak eta onenak gara eta ufa eta iefi. Ez dakigu oraindik zeinen zaila bihurtuko den irabaztea datezen urteetan. Halako batean, barru-barrutik: "Aldatuko nituzke bost Kontxa Realaren Liga baten truke". Segidan entzun nituenak ezin hemen errepikatu. Oker nengoela onartu behar. Bost ez, hamar ere emango nituzke.

4. Larunbat gaua. Berandu jada baina ezin lorik hartu. Geurea bai edo bai. Pare bat irteera balkoira ahal den moduan ospatzera. Marruak, saltoak, onenak gara eta ufa eta iefi. Telebistan, prentsaurrekoa bukatzeaz dagoela, Imanol ere balkoira irten da, kamiseta txuriurdina, bufanda besoetan, eta marruak eta saltoak, *Errealale, irabazi arte beti egongo gara zurekin*. Irudiarekin hipnotizatuta, ezin da gorago igo, pentsatu dut, zerua jo du, ezingo du ezer handiago egin. Behin eta berriro errepikatzen dute, kanal guztietan, entrenatzailearen ateraldia. Dagoeneko bolumena kenduta daukat, baina ederki entzuten da, bere ahotan, belaunaldiz belaunaldi ikasitako oihua, *hemos ganau, hemos ganau, el partido del Bilbao...* ■

NIRE HONETAN




IÑIGO GAITON

Irla txikia herrian

Haur eskolako laguntxo batek positibo eman zuela-eta, alabaren ikasgela itxi zuten apiril amaiera aldera. Ikasturtearen zatirik handiena ustekaberik gabe pasatu eta gero, laugarren olatuaren zipriztinek busti egin gintuzten, eta osasun jarraibideei kasu eginez, umeek etxean berrogeialdia egin beharko zutela adierazi zigan hezitzaileak telefonoz.

Egun batetik bestera halako agindu bat jasotzeak sortu ditzakeen nahasmenaren, kezken eta beldurren jakitun izanik, hezitzailearentzat zaila izango zen dei hori egitea; are gogorragoa, haur eta gurasoekiko goxotasun eta bokazio ikaragarriarekin, lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen den langilearentzat; nekezagoa oraindik ere, enegarren aldiz lan baldintza duinen aldeko borrokan jardun badu.

Haurra bake-bakean lo dagoenean "irla tipia" dela esaten du Sylvia Plathek amatasunari buruzko *Hiru emakume* poeman. Haur eskolan egiten dituen orduetan ere halatsu ikusten dut nik alaba, gauza onak ikasten eta bititzen dituen aparteko tokian. ■



OINARRI **PODOLOGIA ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

Hemengo haragia.
Etzeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...



HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDATEGIA

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



Portu
Erretea - Jateketa

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

SU KIA
TABERNA · JATEKETA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitatezko materialiak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com





XIXARIO
Erretea

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19

Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zainfirituak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Begetarianismoa



TESTUA: LEIRE IZAGIRRE URKIZU

Gaur egun nabarmendu den moda dela badirudi ere, antzinatek datorren korrontea da begetarianismoa. Antzinatek kulturaren gehienetan eraman ohi zen elikatze modu hau.

Europar, antzinatek Greziako erlijioaren jarraitzaileak izan ziren lehenengoak, K.a. VI. mendean, eta gerora, historian zehar oso ezagunak izan diren pertsonaia ugari jarraitu dute landareetan oinarritutako elikadura: Pitagoras, Leonardo Da Vinci, Voltaire eta Rousseau-k, besteak beste.

Hala, batzuen identitate eta bizi filosofia den arren, beste askorentzat arrotza izaten jarraitzen du kontzeptu honek. *The Vegan Society*-ren arabera, honela definitzen da begetarianismoa: bizimodu eta filosofia bat, zeinak animalien esplotazioa eta krudelkeria oro baztertzen dituen. Definizio hau elikaduraren arloan aplikatuz gero, hots, begetarianismoari dagokionez, esan daiteke animalien eratorritako elikagai zein produktu orori uko egitean oinarritzen dela, izan haragia, arraina, arrautzak, ezti, esnea zein esnekiak.

Baina orduan, zer jaten dute begetarianoek? Pentsaezina badirudi ere, horien elikadura oso aberatsa da, fruta, barazkiak, lekaleak, zerealak, fruitu lehorrak eta haziak

egunerokotasunean kontsumitzen baitituzte.

Beganismoa hurbiltzeko arrazoiak artean, moral edo etikoak, ingurumenezkoak, erlijiozkoak, kulturalak eta osasunari lotuak aipatu daitezke. Azken argudio horrek zeresana eman du gizartearen, eta begetarianismoak osasunean izan ditzakeen onurak interesa piztu du zientzialarien artean.

Zer dio zientziak? Ebidentzia zientifikoaren arabera, elikadura begetarianoa daramaten pertsonen bizi ohitura osasuntsuagoak daramatzate, eta beraz, osasunari lotutako aurreikuspen positiboagoa izango dute. Hala ere, berariaz elikadurari lotuta, ez da erraza ondorio garbiak ateratzea, ikerketa bakoitzean modu desberdin batera definitzen baita elikadura begetarianoa, eta emaitza askoren atzean, elikaduraz gain, bizi ohiturek izan dezaketen eragina ere azaltzen baita.

Dena den, orain arte aztertu denaren arabera, pertsona begetarianoek gaixotasun kronikoak garatzeko arrisku faktore gutxiago izan ditzaketela ikusi da ez-begetarianoekin alderatuta:

Obesitateari dagokionez, ikusi den joera honako hau da: geroz eta animalia produktu gutxiago, orduan eta arrisku gutxiago obesitateari garatzeko.

Diabetesaren kasuan, badirudi elikadura begetarianoak 2 motako diabetesaren prebentzioan zein tratamenduan onuragarria izan daitekeela, gaixotasun horrekin lotutako parametro askotan hobekuntzak ikusi baitira. Gainera, badirudi populazio begetarianoak gaixotasun kardiobaskularrak garatzeko arrisku faktore gutxiago dituela, eta bereziki, gaixotasun zerebroaskular eta koronarioak pairatzeko arrisku gutxiago dutela ikusi da. Azkenik, minbiziaren kasuan, pertsona horietan intzidentzia baxuagoa ikusi da, batez ere digestio sistemako minbizietan (kolon, adibidez) eta baita bereziki emakumeetan agertzen diren ere (bularrekoa).

Emaitza horiek ondo antolatutako elikadura begetarianoan ikusi dira; landare jatorriko produktuetan, antioxidatzaile eta zuntzetan aberatsa, eta aldiz, koipe saturatu eta kolesterolean baxuagoa dena. Gainera, B12 bitamina gehigarri gisa hartzearen garrantzia aipatzekoa da elikadura mota horretan.

Hau guzti hau kontuan hartuta, esan daiteke osasuntsu egoteko egoki antolatutako elikadura izateaz gain, bizi ohitura mesedegarriak ere ezinbestekoak direla, izan elikadura omniboroa zein begetarianoan. ■■■


BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05


Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria
Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36


Usurbil Autoak
TXAPA-PINTURA-MEKANIKA
30 URTE ZERBITZUAN
DESINFEKZIO GUNEA
ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA, USURBIL 943 36 10 79


Zarautz
Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura
24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia • Lekualdatzeak •
Eginbide guztien tramitazioa
Araba kalea 35 • ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus


BAZKIDE EGIN NAHI DUZU?
Deitu telefono zenbaki honetara
943-83 53 98
MENUAK EMATEN DIRA
Herriko Plaza, 1


Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
943-89 92 43
012137aa@hezkontza.net

ZINKU
ERAIKUNTZAK
• Igeltserotza orokorra
• Etxebizitzaren erreformak
• Teilatuak
• Sukalde, komunak, etb.
• Eraisketak
*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*
Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Euskara, lehentasun kontua?



TESTUA: JOSI ROIG

Katalana naiz. 42 urte ditut. Bi neska-mutilen ama. Euskaldun batekin ezkondua. Ekintzailea, duela hiru urtetik hona. 11 urte dira Orion bizi naizela.

Katalana dut tresna nire burua ulertzeko, besteekin harremanetan jartzeko eta nire lurrarekin konektatzeko; eta beti pentsatu izan dut nire hizkuntza zaindu, defendatu eta zabaldu behar dudala.

Etiket joaten zarenean, helburu berriak markatu behar dituzu. Nik helburu horiei *joia* esaten diet (katalanez, bi esanahi ditu *joia* hitzak: *bitxia*, batetik, eta *poztasun handia*, bestetik). Zure munduari zentzua ematen dioten gauza txiki horiek dira *joiak*, eta gaur egun, niretzat, hiru dira: osatu dudana familia, abiatu dudana enpresatxoa eta euskara.

Donostian konturatu nintzen hemengo kartel gehienak elebidunak zirela, eta harritu egin nintzen, Katalunian ez baita horrela izaten. Galdetu nuenean, esan zidaten euskara oso zaila zela, baina lasai egoteko, gaztelaniaz jakinda ez nuela arazorik izango. Eta egia zen. Antropologia gaztelaniaz ikasi nuen oso-osorik unibertsitatean: klaseak, harremanak, bilerak, pintxopoteak... Erraztasun handiak eman zenizkidaten euskaldunok, baina... benetan

mesedegarria al da hori etorri berrirentzat?

Unibertsitatea eta gero, bi haurdunaldiak etorri ziren, eta ez neukan denbora askorik euskara ikasteko. Nolanahi ere, jakin-minak bultzatuta, ahal nuen guztia erabiltzen nuen nekiena: *egun on, eskerrik asko...* Jakin-min horrek ireki zidan atea mundua betaurreko euskaldunekin esploratzeko, eta orduan hasi nintzen lagunei eskatzen ez aldatzeko hizkuntza nigatik.

Ez pentsatu *edukazio* onekoak zaretenik zuen hizkuntza bazterten duzuenen ezagutzen ez duzuen norbaitekin hitz egiteko. Pertsona horrek, behar badu, eskatuko dizue hizkuntza aldatzeko, nik batzuetan egiten dudana bezala, baina, mesedez, ez ukatu guri, hasiera-hasieratik, zuek zuen hizkuntzan hobeto ezagutzeko aukera. Pertsona bat sakon ezagutzeko, ezinbestekoa da hizkuntza. Ez itxi guri ate hori!

Gaur egun, ikasten ari naiz. Ez da erraza, baina alemana,

**JAKIN-MINAK IREKI
ZIDAN ATEA MUNDUA
BETAURREKO
EUSKALDUNEKIN
ESPLORATZEKO**

turkiera edo suediera ere ez dira, eta jendeak ederki ikasten ditu, inguru egokia eta gogoia edukiz gero.

Niretzat, euskara ikastea ez da bakarrik euskaltegia joatea, beste gauza asko ere badira: herriko jendea euskaraz agurtzea, inguruan gertatzen denaz kontzienteago izatea, saiatzea, entzutea, mimatua sentitzea norbaitek zerbait errepikatzen duenean konturatu delako ez dudala ulertu... Emozioez eta sentimenduez ari naiz. Emozio eta sentimendu horiek bultzada ematen didate, nire autoestimua sendotzen dute eta indartu egiten dute zuen artean bizitzeko bere garaian hartu nuen erabakia. Emozio eta sentimendu horiek oso nireak dira, barru-barrukoak; baina, beharbada, zuenak ere bai, eta inportanteak dira.

Zuek kutsatu didazue hizkuntza honekiko maitasuna, eta orain lehentasunezko kontu bat da niretzat. Euskarari esker asko hobetu da nire ongizate pertsonala eta soziala. Eskerrik asko.

Euskarak balio dit errespetuaz, tolerantziaz, dibertsitateaz eta sentiberatasunaz hitz egiteko. Seguru nago kanpotik etorri garen askok horrelaxe sentitzen dugula, zeren eta... behin euskara barruan duzula, nola ez duzu, ba, estimatuko? ■■■

Emakumeen atletismo taldea sortu dute Orion

Kamel Ziani Atletismo Klubaren barruan sortu dute emakumeen atletismo taldea, eta maila eta adin desberdinetako 45 emakume inguruk osatzen dute. Talde handia denez, erritmo eta maila desberdinetako kideak bildu dira. Horregatik, azpi taldeak egin dituzte entrenatzeko. “Badira emakumeak korrika asko egitera ohituta daudenak eta urte asko daramatenak. Beste batzuk, berriz, korrika jardundakoak dira, baina denbora daramate kirolik egin



Atletismo taldeko neskak. UTZITAKOIA

gabe. Badaude baita ere kirol pixka bat egiteko asmoz animatu direnak taldean parte hartzera”, azaldu du Aitor Rubio klubeko kideak.

Horregatik, hiru talde osatu dituzte, bakoitza bere martxan joan dadin, eta talde bakoitzarekin entrenatzaile bat ibiltzen da. Astean hiru entrenamendu egiten dituzte: bi egunetan taldeko entrenamenduak egiten dituzte entrenatzaileekin, eta hirugarren entrenamendua korrikalari bakoitzak nahi duenean egin dezake.

Baratze parkea udazkenean irekitzea aurreikusten du Orioko Udalak



Paloten gunean materiala eta erramintak gordetzeko etxola jarri dute. IÑIGO GAITON

Paloten gunean 40 partzela egokituko ditu Orioko Udalak, herri baratzeak sortzeko, eta hasi dira udalak eremu horretan dituen lurretan egokitze lanak egiten. Garbiketari jardun dute,

eta nekazaritza lanetan aritzeko materiala eta erremintak gordetzeko erabiliko den egurrezko etxola ere jarri dute. Kimubat enpresak egokitu du ingurua.

Partzela gehienak 40 metro koadroko azalerakoak izango dira, eta gutxi batzuk 60 metro koadrokoak. Araudian zehazten denez, ezingo da saldu herri baratzeetan jasotako uztarik eta nekazaritza ekologikoa egin beharko dute erabiltzaileek; Ekogunearen laguntza izango dute horretarako. “Autokontsumoa sustatzea da, besteak beste, proiektuaren xede nagusietako bat», azaldu du Ainara Munduate Hirigintza zinegotziak.

Uda hasieran irekiko du udalak izen ematea, eta partzelak udazkenean egongo dira erabilgarri. Herrian dagoen interesa ikusita, partzelen izendapena zozketa bidez egin beharko dela uste du zinegotziak. ■■■



ENTZUNEZKOAK


- ZUZENeko EKITALDIEN EMISIOA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- BIDEO MARKETINA
- SARE SOZIALETARAKO IKUS-ENTZUNEZKOAK
- PUBLIRREPORTAJEAK
- DOKUMENTALAK



GUKA  ZERBITZUAK

Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua

B	T	S	D	
S	D	A	T	
S			T	E
D	E	B	A	
D	T	E		
B		T	D	

Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokua lau zuriak BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonon aitona-amonen beren haurtzaroon landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?



IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko portuan. Tel. 649 22 87 87.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrik emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Tel. 690 06 63 11.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

MAILAN (Tren-geltoki atzealdean). Jantokiko antzinako altzariak, kaobazkoak, kalitate handikoak. Aukera ona. Deitu: 943-89 03 45 edo 669 78 19 63.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	08:23 eta 20:45	02:03 eta 14:24	☉
2	09:22 eta 21:48	02:58 eta 14:21	☾
3	10:36 eta 23:04	04:04 eta 16:31	☾
4	12:05	05:22 eta 17:55	☾
5	00:27 eta 13:27	06:45 eta 19:15	☾
6	01:41 eta 14:28	07:56 eta 20:18	☾
7	02:39 eta 15:15	08:49 eta 21:06	☾
8	03:24 eta 15:52	09:31 eta 21:47	☾
9	04:03 eta 16:25	10:07 eta 22:24	☾
10	04:37 eta 16:55	10:40 eta 22:58	☾
11	05:09 eta 17:23	11:11 eta 23:31	☾
12	05:40 eta 17:52	11:42	☾
13	06:11 eta 18:21	00:03 eta 12:12	☾
14	06:42 eta 18:52	00:35 eta 12:42	☾
15	07:16 eta 19:26	01:08 eta 13:15	☾
16	07:53 eta 20:04	01:44 eta 13:51	☾
17	08:36 eta 20:50	02:25 eta 14:33	☾
18	09:30 eta 21:49	03:14 eta 15:26	☾
19	10:39 eta 23:02	04:16 eta 16:34	☾
20	11:59	05:30 eta 17:53	☾
21	00:19 eta 13:10	06:43 eta 19:04	☾
22	01:27 eta 14:08	07:46 eta 20:04	☾
23	02:25 eta 14:58	08:40 eta 20:57	☾
24	03:17 eta 15:45	09:28 eta 21:46	☾
25	04:06 eta 16:31	10:15 eta 22:34	☾
26	04:54 eta 16:16	11:00 eta 23:22	☾
27	05:42 eta 18:02	11:46	☾
28	06:31 eta 18:50	00:11 eta 12:33	☾
29	07:22 eta 19:41	01:01 eta 13:21	☾
30	08:15 eta 20:34	01:54 eta 14:12	☾
31	09:12 eta 21:33	02:49 eta 15:08	☾

FARMAZIAK-MAIATZA

ZARAUZ

13 eta 27. ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

8, 9 eta 19. ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83

25 eta 31. GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19

20, 26, 29 eta 30. GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

18 eta 24. IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70

7, 11, 12, 14, 17, 22, 23 eta 28. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 /

943-83 29 70

15, 16, 20 eta 21. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14

10. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

AGENDA

ORIO

MAIATZAK 15 LARUNBATA

Kontzertua: Olatz Salvador.
Karela kiroldegian, 19:00etan.

MAIATZAK 22TIK 30ERA

Kukuarri Astea Orion.

MAIATZAK 22 LARUNBATA

Aurkezpena eta dokumental emanaldia: Iker Karreraren liburua.
Arraunetxen, 18:30ean.

MAIATZAK 23 IGANDEA

Talai-Mendi Trail mendi lasterketa.
09:30ean hasita.

MAIATZAK 24 ASTELEHENA

Ipuin kontalariaren saioa: Miriam

Mendoza. 3-6 urte bitarteko haurrei zuzendua.
Kultur Etxeko areto nagusian, 17:30ean.

MAIATZAK 26 ASTEAZKENA

Liburuaren aurkezpena: *Moio.*
Kattalin Miner hizlariaren eskutik.
Orioko Kultur Etxean, 18:00etatik 19:00etara.

MAIATZAK 28 OSTIRALA

Emanaldia: Mendi Tour film.
Arraunetxen, 19:00etan.

MAIATZAK 29 LARUNBATA

Tailerra: *Errealitatea eraldatzen: eskubideak guztiontzat izenekoak.*
Malen Etxeako Silvia Carrizoren eskutik. (Gaztelaniaz).
Orioko Kultur Etxean, 15:30etik 18:30ra.

ERAKUSKETA



MAIATZAREN 17TIK 21RA

Goiuri Unanue eta Jon Alkain diseinatzaileen erakusketa. Orioko Herri Ikastolak antolatuta.
Orioko Kultur Etxean.

MAIATZAREN 30ERA ARTE


Iban Egigurenen erakusketa. Argazkilariak New Yorken egindako argazkiekin osatu dute erakusketa.
Salatxo tabernan.

arnasa gara

Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnaguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

EGUNEROKOAN ZER?

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.



www.arnasagara.eus
martxoaren 22tik maiatzaren 14ra

Astero bideo bat eta elkarrizketa bat.

Puntua jarrita

Iñaki Alkain.
(Doinua: Espainian behera)

1 Bate basurderikan ehizatzen al dezu?

Badabiltza hainbeste piztia iletsu. Halere okerreko galdera (eg)in diazu azeri (e)ta orkatza gure kompromezu. Aurtengoagatikan ni ez nago kexu.

2
Asteburutarako det afizio. Goiz jeiki beharra du kondizio. Orkatzaren zaunka ta txorien txioa, ehizean aritzeak duen tentsioa. Bilakatu daiteke kriston bizioa.

3
Nahizta ehizatu aurten makina bat ale. Eginak ditut beste horrenbeste kale. Izango da ibiltzen garenan seinale. Batzutan geldirikan gero txakurzale. Gustura ibiltzea neretzako bale.

Hurrengo bertsolaria:

Joxeba Altuna.

Puntua:

Futbolakin bukatu ta arraunakin hasi.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Iñaki Alkaineri jarri dio puntua Joseba Pagadizabalek: "Bate basurderikan ehizatzen al dezu?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



NAIARA LARRAÑAGA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

Ate irekiak

Maiatzak 12



Erdi Maila: 16:00 - 17:30
Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 15



Erdi Maila: 10:00 - 11:30
Goi Maila: 11:30 - 13:00

HARTU
HITZORDUA!!



 943-36 46 00

 adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus